

81/2024 EBAZPENA, 2024KO OTSAILAREN 9KOA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIKO EKONOMIA ETA FINANTZA ZUZENDARIORDETZAN EROSKETA ZERBITZUKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILE LANPOSTU BAT ALDI BATERAKO BARNE SUSTAPENAREN/ZERBITZU EGINKIZUNEN BIDEZ BETETZEKO DEIALDIA EGITEN DUENA.

LANPOSTUA: ADMINISTRAZIOKO ETA ERABILTZAILEAREN ARRETAKO LAGUNTZAILEA

DESTINOA: Ekonomia eta Finantzako Zuzendariordetza, Erosketa Zerbitzua. Zuzendaritza Nagusia (Vitoria-Gasteiz),

LANALDIA: Zatitua

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA: 2. HE, derrigortasun-data 2013ko abenduaren 3an igarota.

BALDINTZAK:

(Agiri bidez egiaztatu beharko dira, salbu eta Osakidetza CV aplikazioan jasota badaude).

Aldi baterako barne-sustapena eskatzen dutenentzat:

- Karrerako funtzionarioa, estatutupeko langilea edo lan-kontratuko langile finkoa izatea, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikia.
- Zerbitzu aktiboan egotea eta lortu nahi den lanpostuaren titulazio-maila bereko edo txikiagoko beste kategoria batekoa izatea.
- Administrari laguntzaileen kategoriako karrerako funtzionario edo estatutupeko langile finko gisa edo lan-kontratu finkorik ez izatea, eskatzaileak izendapen edo kontratu horri dagokionez duten administrazio-egoera edozein dela ere.
- Zuzendaritza Nagusira langile finko gisa atxikita egotea, Zuzendaritza Nagusiko langileen arteko barne-sustapenaren kasuan.
- Zuzendaritza Nagusia ez den beste zerbitzu-erakunde batera atxikita egotea langile finko gisa, zerbitzu-erakundeen arteko barne-sustapenaren kasuan.
- Kategoria bereko lanpostu batean aldi baterako barne-sustapenean egonez gero, urtebete baino gehiago eman beharko da egoera horretan.
- Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan ezarritako titulazioa eta deitutako azken EPEko kategoriaren deialdiko oinarrietan eskatzen diren gainerako titulazio-eskakizunak izatea.

Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

.or.1

Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:

- Karrerako funtzionarioa, estatutupeko langilea edo lan-kontratuko langile finkoa izatea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikia, edo karrerako funtzionarioa edo estatutario finkoa Osasun Sistema Nazionaleko gainerako osasun-zerbitzuetan, administrari laguntzaileen kategorian.
- Zerbitzu aktiboan egotea eta lanpostua jabetzan duen edo zerbitzu aktibora behin-behinean itzuli delako atxikita dagoen zerbitzu-erakundea ez den beste batean lanpostuak betetzeko eskaera egitea.

Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

MEREZIMENDUEN BAREMOA

(agiri bidez egiaztatu beharko dira, CV aplikazioan jasota ez badaude):

Aldi baterako barne-sustapena eskatzen dutenentzat:

- EPEko oposizio-fasea (Gehienez 100 puntu)
- Lanbide-esperientzia (Gehienez 80 puntu)

Eskabideak aurkezteko epea irekitzen den egunera arte aitortuta duten zerbitzu-denbora zenbatuko da.

Zerbitzu-eginkizunak bete ez dituzten eskatzaileen kasuan:

- Lanbide-esperientzia, kategoria honetako azken lekualdatze-lehiaketan. (Gehienez 47,5 puntu).

Eskabideak aurkezteko epea irekitzen den egunera arte aitortuta duten zerbitzu-denbora zenbatuko da.

ESKABIDEAK AURKEZTEA

Interesdunek beren eskabidea eta datu pertsonal guztiak bidali beharko dituzte Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiko Giza Baliabideen Zuzendaritzara (Araba kalea, 45). Eskabidearekin batera, *Curriculum Vitae* dokumentatua aurkeztu beharko dute (aplikazio informatikoan baliozkotuta dutenak izan ezik), bai eta hori egiaztatzeko egokitzat jotzen duten dokumentazioa ere.

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, deialdia web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

LEHENTASUN HURRENKERA

Lanpostua betetzeko lehentasun-ordena honako hau izango da:

1. Aldi baterako barne-sustapena Zuzendaritza Nagusian. Sistema hori erabiliz lanpostua ezin bada bete, hurrengo zenbakian aurreikusitakora joko da.
2. Zerbitzu-eginkizunak. Sistema hori erabiliz lanpostua ezin bada bete, hurrengo paragrafoan aurreikusitakora joko da.
3. Zerbitzu-erakundeen arteko aldi baterako barne-sustapena.

BALORAZIO BATZORDEA

Balorazio Batzorde bat eratuko da, Giza Baliabideak Hautatu eta Hornitzeko zuzendariordea edo haren ordezkoa buru dela, eta honako hauek osatuko dute: Erosketa Zerbitzuko buruak, Administrazio Kontratazioko Zerbitzuko buruak eta Hornidura Zerbitzuko buruak (azken horrek idazkari gisa jardungo du).

HAUTAKETA PROZEDURA

Interesdunek garaiz eta behar bezala aurkeztutako dokumentazioa baloratuko du Batzordeak. Aurrekoa ikusita, dagokion izendapena formalizatzeko proposamena egingo da. Balorazio Batzordeak deialdia bete gabe utzi ahal izango du, izangaiek eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte.

EBAZPEN HONEN AURKAKO ERREKURTSOAK

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakiok e Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea emango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 9a.



Osakidetza
Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS
Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA